

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 24/2016 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, aldatzen dituen ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren arautegia eta abenduaren 14ko 71/2004 Foru Dekretua, onartzen dituen lurralde historiko honetan dauden landa eta hiri ondasun higiezinak balioztatze arau zehatzak

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 30eko 66/2003 Foru Dekretuan, Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Arautegia onartzen duenean, eta Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 71/2004 Foru Dekretuan, Arabako Lurralde Historikoan dauden landa eta hiri ondasun higiezinak balioztatze arau zehatzak onartzen dituenean, jasotako zenbait manuren baliogabetasuna adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren martxoaren 25eko 142/2015 Epaia.

Epai horrek hau zehazten du:

“...Baina foru terminologiari Auzitegi Gorenak aplikatutako konstituzio eta ohiko legezko parametroak aplikatuz gero, ondorioztatu behar da eraikinaren benetako edo katastro balioa dela-eta obra berri adierazteagatik eta, beraz, jabetza horizontalaren araudia eratzegatik, EJDZren zerga oinarria ez datorrela bat horietan adierazitakoarekin, subjektu pasiboaren ordaintzeko gaitasunari dagokionez.

Hortaz, kasuari “ratio decidenci” aplikatzeak berekin dakar 66/2003 Foru Dekretuaren 26-3 eta 4 eta 71/2004 Foru Dekretuaren 7. II.bi artikuluen baliogabetasuna, bai eta azken manu horren Bat paragrafoaren interpretazioa ere; hau da, eraikinaren balio gisa hartzea eraikitze materialaren kostua; eta horrek, gure kasuari dagokionez, bat egiten du errekurtsogileak adierazitakoarekin eta egiaztatutakoarekin...”

Foru dekretu honen bidez, interpretazio judiziala gehitzen zaio Arabako zerga Arautegiari, egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako eraikinen balioa eta zerga oinarria zehazteko orduan lehentxeago aipatutako arauetan aldaketa egokiak eginez. Balio hori eta, ondorioz, zerga oinarria kalkulatzeko, kontuan hartuko da eraikitze materialaren kostua eta ez eraikinaren benetako kostua.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehena. Aldatzea Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Arautegia, abenduaren 30eko 66/2003 Foru Dekretuaren bidez onartua.

Aldatu egiten dira Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Arautegiaren, abenduaren 30eko 66/2003 Foru Dekretuaren bidez onartuaren, 26-3 eta 4 paragrafoak. Hona hemen horiek aurrerantzean izango duten testua:

“3. Obra berriaren benetako kostuaren balioa izango da zerga oinarria, obra berrien adierazpen eskriturretan.

4. Jabetza horizontalaren araudipeko eraikinen eratze eskritoretan, zerga oinarriak aintzat hartuko ditu nola obra berriaren kostuaren benetako balioa hala lursailaren benetako balioa.”

Bigarrena. Aldatzea abenduaren 14ko 71/2004 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoan dauden landa eta hiri ondasun higiezinak balioztatzeko arau zehatzak onartzen dituen.

Aldatu egiten dira abenduaren 14ko 71/2004 Foru Dekretuaren, Arabako Lurralde Historikoan dauden landa eta hiri ondasun higiezinak balioztatzeko arau zehatzak onartzen dituenaren, 7. II artikulua Bat eta Bi paragrafoak. Hona hemen aurrerantzean izango duten testua:

“Bat. Obra berriaren kostuaren benetako balioarekin balioetsiko dira obra berriaren adierazpenak.

Bi. Jabetza horizontalak balioesteko batu egingo dira, batetik, obra berriaren kostuaren benetako balioa eta, bestetik, honako bi hauen biderketaren emaitza: lurzoruaren katastro balioa eta, non dagoen kontuan izanik, 7. artikuluan adierazitako koefizientea.”

Hirugarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTINEZ